

2021. URTEKO MEMORIA

Babesa gara

(zehar)

errefuxiatuekin



www.zehar.eus



Aurkibidea

- 2021a zenbakitan 3
- Javier Galparsorenen
gutuna, Zehar
Errefuxiatuekin
elkarteko presidentea 4
- Arantza Chacónen
hitzak, Zehar-
Errefuxiatuekin taldeko
zuzendari berria 5
- Orain Zehar-
Errefuxiatuekin gara 6
- Zehar taldea 8
- Ikuspegia 9
- Kontuak argi 12
- 2021eko jarduera
nagusiak 14
 - Esku hartzea 14
 - Intzidentzia 20



2021a
zenbakitan

25 urte
bete ditugu
Euskadin
babesa
ematen.



Tarte horretan 90
herrialdeko
40.000 pertsona
artatu ditugu.



Oñatiko eta
Tolosako
zentroetan 331
pertsona hartu ditugu.

Gizarteratze
lantaldeak
894 pertsona artatu
ditu.



Gure talde juridikoak
nazioarteko babesarekin
lotutako 414 jarduketa
egin ditu.



Lagundu gabeko 269
gazte artatu ditugu Hemen
programan.



Eraberean sareak arraza-
diskriminazioarekin
lotutako 9 kasu artatu
ditu.

Ekainaren 20ko
manifestazioetan 400
pertsona mobilizatu ziren.



Azken 10 urteetan giza
eskubideen
30 defendatzaile hartu
ditugu.



400 pertsona bertaratu
ziren 'Ipar basatia'
dokumentala ikustera.



9.504 jarraitzaile
gure sare sozialetan.

685 parte-hartzaile
Arabako Bizilagunak
kulturarteko bazkarietan.



Javier Galparsororen gutuna,

Zehar-Errefuxiatuekin elkarteko presidentea

Siriako gerratik ihesean zihoan bere familiarekin batera. Bere gorpu txikia, Turkiako hondartza batean etzanda. Aylan Kurdi zuen izena.

Duela urtebete baino gutxiago, milaka pertsona erregimen talibanetik ihesean ari ziren. Horietako askok herrialdean harrapatuta jarraitzen dute.

Gaur, Ukrainako umeek agur esaten diete beren senideei, peluxea eskuan eta sudurtzua Leonpoliseko geltokiko bagoiari itsatsita dutela.

Mendebaldeko Saharako gerrako irudiak datozkigu berriz ere. Espainiako Gobernuak beste alde batera begiratzen du migrazio-fluxuen kontrola ziurtatzeko.

Palestinarek, betiereko gatazka baten biktima izaten jarraitzen dute.

Kanarietako ibilbidean hilotzak eta hilotzak, etengabe.

Kolonbian bereizi gabeko hilketek jarraitzen dute.

...

Batzuek ihes egitea lortzen dute. Eta helmugara iristen dira. Eskubidea dute eta nazioarteko babes eskatzen dute. Baina, oztopo-lasterketak jarraitzen du: Espainiako estatuak asilo eskarien %10 baino ez ditu onartzen.



Javier Galparsoro, Zehar-en presidentea.
Argazkia: Zehar-Errefuxiatuekin

Eta horren guztiaren erdian, Jaqueline bezalako pertsonak gogorazten digute lanean jarraitzeak merezi duela. Duela urte eta erdi iritsi zen Hondurasetik, bere bikotekidearen indarkeriatik eta maren jazarpenetik ihesean. Bere bizitza berreraiki du Euskadin. Larraña Etxea harrera zentroa bere etxea izan zen hainbat hilabetez. Orain, Errefuxiatu Estatutua lortu duela, bere semearekin bizi da Gipuzkoan, bertan lan egiten du eta lagunak egin ditu.

Egunero eragiten dugu gizarte eta politika mailan asilo eskubidea eraginkorra izan dadin. Egunero Jaqueline bezalako ehunka pertsonari laguntzen diogu, aurrera egiteko borrokan dabilzanak. 2021eko memoria honekin, ororen gainera, horiei guztiei aitortza egin nahi diegu. Haien indarrak, gureak eta bide honetan laguntzen diguzuenenak biltzen jarraituko dugu. Mundu hobea erakitzen jarraituko dugu. Jaquelinek gogorazten digu posible dela.

Arantza Chacónen hitzak,

Zehar-Errefuxiatuekin taldeko zuzendari berria

Gure erronkarik handienetakoa da indarkeriatik eta giza eskubi-deen urraketetatik ihesi doazen pertsonak laguntzen jarraitzea, babesa eskatzeko eta jasotzeko duten eskubidea egikaritu dadin. Lan horrekin batera, giza eskubide guztiak aitortu behar dira, bereziki errefuxiatuen eta egoera zaurgarrian dauden migratzaileen eskubideak.

Honek, nahitaez, harrera-eredu egoki bat eskatzen du. Jendarteak nahigabetuta jarraitzen du pandemiaren eta Ukrainako gerraren ondoren. Une egokia da ikasitakoak berreskuratzeko, euskal gizartearen elkartasuna indartzeko eta hiri abegikorren eredia bultzatzeko, Euskadira iristen diren migratzaileen eta errefuxiatuen errealitateari erantzuteko gai izango dena, datozen tokitik datozela.

Beste erronka garrantzitsuetako bat pertsonak egoera erregularran egon daitezen lortzea da. Ez soilik asiloaren aitortzaren bidez, baita asiloa ukatzen dieten per-

sonak erregularizatzeko eskura ditugun tresna guztiak erabilia ere. Izan ere, azken hauek dira gehiengoa.

Lekualdatze behartuen sorburua aztertzen jarraituko dugu, jakiteko zeintzuk diren pertsonak haien etxeetatik ihes egin eta babesa bilatzera bultzatzen dituzten indarkeriak. Erdialdeko Amerikako krimen antolatuaeren jazarpenak eragindako indarkeriari buruz ari gara, edo lekualdatzeak eta txirotasuna eragiten duten enpresa transnationalei buruz, bertan bizi ziren biztanleak alde egitera eta beren bizitzak uztera behartzen dituztenak. Indarkeria, askotan, desplazamenduak behartzeko estrategia gisa erabiltzen da.

Ez dira urrutiko gauzak. Eta honek gure bizilagunei eragiten die, gure lankideei, gure seme-alaben ikaskideei, eta abar. Gainera, gure enpresa-inbertsio politikarekin eta gure kontsumo ohiturekin lotura estua du.



Arantza Chacón, Zehar-en zuzendaria.
Argazkia: Zehar-Errefuxiatuekin.

Etapa berri honetan, aldi baterako babesa ematen jarraituko diegu arrisku-egoeran daudenei eta beren lurraldeetara segurtasun handiagoz itzuli ahal izateko denbora behar duten giza eskubideen defendatzaileei, beren lana eta beren erakundeena bermatzen jarraitzeko, lurraldeen eta bizitzaren defentsaren alde.

Eta jarraituko dugu mugak kanporatzeko politika ankerrak salatzen; izan ere, horien bidez ahalegin guztiak egiten dira pertsonak haien herrialdeetatik atera ez daitezen; eta lortzen badute, bidean geratu daitezen oztopo guztiak jartzen dizkiete; eta, Europara iristea lortzen badute, itzularazten dituzte. Hori guztia beren bizitzak berregiteko leku seguru bat besterik bilatzen ez duten pertsonen gero eta ibilbide arriskutsuagoak jarritz.

Orain, Zehar -Errefuxiatuekin gara

2021ean 25 urte bete genituen Euskadin nazioarteko babesaren eskubidearen alde lanean. Tarte horretan, 90 herrialde desberdinetako 40.000 pertsona baino gehiago lagundu ditugu. Ez da erraza izan, hamaika oztopo izan baititugu. Horregatik, hunkitu egiten gara emakumeren batek nazioarteko babesa eskatzeko hitzordua lortzen duenean; lehen lan-kontratua sinatzen duenean; alokairuko gela edo etxebizitza bat lortzen duenean; bankuan kontu bat irekitzea lortzen duenean... eta nazioarteko babeserako aldeko ebazpena jasotzen duenean, zer esanik ez! Gure lanak etorkizun

nean zirrara galduko al du! Sikiera oinarrizko eskubideak arau bihurtuko balira...

Erronka asko ditugu parean. 25. urteurrena aukera paregabea izan da erronka horiei heltzeko estrategiei buruz hausnartzen jarraitzeko. Gure izena gaurkotzea hemen jarraitzen dugula ikusarazteko beste modu bat ere bada, inoiz baino indar eta energia gehiago dugula erakusteko.

Gure logo berrian koloreak eta kortxeteak mantentzen ditugu. Gainera, fonetikoki bi izenen arteko lotura mantentzen dugu.

(zehar)

errefuxiatuekin



Zehar-ek gure misioa dakar gogora: zerbaiten bidez, zerbaiten barrena. Egindako bideari eta egin beharrekoari egiten dio erreferentzia.

Errefuxiatuekin eranskina inklusi-boa da, bidea elkarrekin egiten dugula adierazten duelako. Gainera, **Zehar** euskarazko hitza da, parte garen eta lan egiten dugun herriaren hizkuntza. Gurekin lan egiten dutenak ere horren parte izatea nahi dugu. Markaren trantsizioa azaltzen duen bidea **HEMEN** ikus dezakezue.

2021ean Zuzendaritza Batzordea berritu genuen. Patricia Bárcenak, bi hamarkada baino gehiagoz elkartearen zuzendari izandakoak, beste urrats bat egin zuen giza eskubideen aldeko borrokan, eta Espainiako Arartekoaren taldean sartu zen, Ángel Gabilondo titularraren ordezkogisa. Dударik gabe, Zehar pertsona askoren konpromiso kolektiboaren emaitza da: langileena, boluntarioena, bazkideena eta emaileena. Baina, Patriciaren gidaritzarik gabe, nekez irits gintezkeen gaur egun gauden tokira. Eskerrik asko horregatik guztiagatik, Patricia.

Hori bai, hainbeste aldaketaren artean, ikuspegi, balio eta motibazio berberei eusten diegu: gatasketatik, jazarpenetik edo miseriatik ihes egiten duten eta Euskadin babesa bilatzen duten pertsona guztientzat babesleku izatea.

Zeharren historiari buruz gehiago jakin nahi baduzu, 25. urteurrenaren harira streaming bidez zabaldu genuen solasaldia ikus dezakezue **HEMEN**.

Zehar Taldea

Arantza Chacónen curriculum vitae

Sevillako Unibertsitatean Zuzenbidean lizentziaduna da eta Garapenerako Lankidetzan eta Giza Eskubideetan espezializatua. Bere ibilbide profesional guztia behartutako desplazamenduekin eta nazioarteko babesarekin lotuta egon da gobernuz kanpoko erakunde desberdinetan. Konpromiso sendoa du giza eskubideak, feminismoa eta berdintasun ekonomiko, sozial, kultural eta politikoa sustatzean.

2001etik darama Zeharri lotuta. Horrez gain, 2018an ireki zirenetik gaur arte, Oñatiko 'Larraña Etxea' eta Tolosako 'Zuloaga Txiki' babes internazionalerako guneak zuzendu ditu, Zeharren esku-hartze estrategiarekin batera. Gainera, zuzendaritza taldearen kide izan da 2019tik gaur arte.

Zuzendaritza Batzorde berria

Gure Zuzendaritza Batzordea ere berritu dugu. [Es- teka honetan](#) klik eginda, osaera berria eta zuzendaritza taldeko gainerako kideak ezagutu ditzakezue.

Zehar Taldea

Zeharren giza lantaldea boluntarioek, bazkideek eta soldatapeko langileek osatzen dute. Eta, jakina, artatzen ditugun pertsona guztiak.

59

boluntario

39 emakume eta
20 gizon

54

langile

33 emakume eta
21 gizon

182

bazkide

92 emakume
89 gizon
eta elkarte bat



Ikuspegia

Zehar osatzen dugun pertsona guztiok misio, ikuspegi eta balio berberak ditugu.

Misioa

Gure misioa da nazioarteko babesa behar duten eta/edo bazterkeria arriskuan dauden errefuxiatuen, desplazatuen, aberrigabeen eta migratzaileen giza eskubideak eta garapen integrala defendatzea eta sustatzea.

Ikuspegia

Zehar aldaketarako eta eraldaketarako eragile gisa sendotuko da, jendarte jasangarri, bidezko eta diskriminaziorik gabeko baten bidean, oinarri hartuta aukera-berdintasuna eta nortasun indibidual eta kolektiboarekiko errespetua, eta, horretarako, integrazio sozial, kultural, laboral eta politikoko prozesuak sarean kudeatuko ditu, hainbat interes-taldek elkarrekin parte hartuta.

Balioak

Justizia, konpromiso aktiboa eta kudeaketa arduratsua.

Estrategia

Gure [IV plan estrategikoan](#) murgilduta jarraitzen dugu, hurrengo helburu nagusiak dituen:

- Etorkinen, errefuxiatuen eta aberrigabeen garapen integrala.
- Beren eskubideak eta nazioarteko babesa defendatzea eta kulturarteko bizikidetzaren sustatzea.
- Antolakuntza sendoa, bidezkoa eta jasangarria.

Lan-ikuspegia

Ikuspegi hauekin egiten dugu lan:

Ikuspegi feminista, interseksionala, psikosoziala, kulturartekoa eta giza eskubideen aldekoa.

Pertsoneri arreta indibidualizatua eskaintzen diegu, eta haiekin lan egiten dugu garapen integrala sustatzeko. Beren prozesuen protagonista izan daitezen sustatzen dugu, berreraikitzen ari diren bititza berrian.

Sarean egiten dugu lan

Gaur egun, honako lan-sare hauetan parte hartzen dugu:

- EAPN.
- Gizardatz.
- Harresiak Apurtuz.
- Beste Bi Plataforma.
- Red-Familia.
- Ecosistema.
- Gasteizko Udaleko errefuxiatuen tokiko mahaia.
- Euskal Autonomia Erkidegoko herritar etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroa.
- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Kontseilu Errektorea.
- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua.
- Eraberean. Tratu-berdintasunaren aldeko eta diskriminazioaren aurkako sarea.
- Boluntariora foroak (Bolunta, Gizalde, Batekin...).
- Sexu-esplotaziorako emakumeen eta nesken salerosketaren aurkako koordinazio Mahaia.
- Ongi Etorri Errefuxiatuak Bizkaia.
- Arabako Tipi-Tapa gaztelania sarea.
- Sareak Josten/Tejiendo Redes.
- ZAS. Zurrumurruen Aurkako Sarea.
- Aldi baterako birkokatzeko Europar Plataforma (EU-TPR), Project Defenders taldearen baitan dagoena.
- Defensoras Sarea.
- Espainiako estatuko Babes Programen Sarea.
- Kolektiba Colombia.
- Kolonbiarekiko elkartasuna koordinatzeko gunea.
- Donostiako Udaleko Garapenerako Lankidetzeta eta Hezkuntzako Kontseilua.
- Gasteizko Udaleko Bizikidetzeta eta Aniztasun Elkargunea.
- Bizkaiko Foru Aldundiko aniztasun arloko elkarrizketa eta parte-hartze mahaia.
- Somos Diversxs Plataforma.
- Enpresa transnazionalen eta giza eskubideen euskal zentroa.

Genero Barne Taldea

Emakunderen erakunde laguntzailea gara eta orain arte bi berdintasun plan jarri ditugu martxan. Horien artean bigarrena, 2016-2019 aldirako aurreikusita zegoena, pandemiaren ondoriozko zailtasunengatik luzatu egin zen. 2021ean, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren finantzaketarekin, diagnostiko parte-hartzaile bat abiatu genuen eta, hortik abiatuta, Berdintasunaren Aldeko III. Ekintza Plana egingo dugu. Hau, 2022ko irailaren amaieran onartzea aurreikusten dugu.

Horretarako, barne-egitura bat artikulatu dugu, erakundeko pertsona guztiek berdintasunaren aldeko al-daketa-prozesuetan parte hartzea bermatzen duena: generoaren erreferentearekin batera, Genero Barne Taldea dugu, non erakundeko arlo guztiak ordezkatuta dauden, talde teknikoko kideak, boluntarioak eta Zuzendaritza Batzordeko kideak. Era berean, Oreka Sarea erakunde espezializatuak kanpo-aholkulari gisa dihardu, diagnostikoa eta plana egiteko.




Diagnostikoa egiteko topaketa.
Argazkia: Zehar-Errefuxiatuekin.

Kontuak argi

PKF ATTESTek urtero ikuskatzen ditu gure kontuak.
Gure kontu-ikuskapenen inguruko informazio gehiago [HEMEN](#).


Sarrerak

Sarrerak guztira:
2.939.956 euro.



Gastuak

Gastuak guztira:
2.946.341 euro.



Gure finantzatzaileak:



Gure laguntzaileak:



Esku-hartze Arloa

Harrera Programa

Guztira, 17 emakume eta 43 gizon, horietatik % 75 Marokotik etorritakoak.

60

pertsona
artatu dira

Adinari dagokionez, % 64 mutil gazteak izan ziren (18 eta 35 urte bitartekoak), eta jarraian adingabeak, artatutako pertsona guztien laurdena baino gehiago izan zirenak. Egonaldiaren batez besteko iraupena 6 hilabetekoa izan zen, baina aldakortasun handia egon zen familia-unitatearen zaurgarritasunaren eta osaeraren arabera.

Harrera-zentroak

Zeharren **Oñatiko Larraña Etxea eta Tolosako Zuloaga Txiki** zentroak kudeatzen ditugu. Eusko Jaurlaritzak, Estatuko asilo-sisteman aldi baterako edo modu iraunkorrean tokirik gabe geratzen ziren pertsonen beharrianak kontuan hartuta, bi zentroen artean 130 plaza irekitzea ahalbidetu zuen. Tolosakoak, bere aldetik, herriko udalaren babesa du, eta honek instalazioak lagatzen dizkigu.

Harreraz eta oinarrizko premien estalduraz gain, arreta juridikoa, tokiko HHEen bidez hizkuntza ikasteko zerbitzua, eta ibilbide pertsonalizatuaren bitartez lanerako prestakuntza eta orientabidea eskaintzen ditugu. Aisialdiko jarduerak ere garrantzitsuak dira, nahiz eta 2021ean egoera pandemikoak markatu zituen. Hala ere, une bakoitzean zeuden aukerak kontuan hartuta, zenbait topaketa egin genituen: irteerak mendira eta hondartzara, kick boxing eskolak, jostintza ikastaroak edo dantza eskolak, besteak beste.

Zuloaga Txiki Tolosan

Dauzkagun instalazioen nolakotasunak zeharo markatzen du zentro honen profila. 2021ean


92

pertsona
artatu dira

Zuloaga Txiki 92 pertsona hartu zituen: batez ere, bakarrik zeuden gizonak, gazteak eta marokorak, eta gehienak penintsulara itsasoz iritsitakoak, bereziki arriskutsuak diren bideetan bizitza arriskuan jarri ondotik.

Urtean zehar hainbat ekintza egin genituen eskualdean komunitatearen parte-hartzea sustatzeko, besteak beste:

- Egoiliarren parte-hartze soziala lantzeko bi tailer: lehena, migratuen eta errefuxiatuen artean,



beren parte-hartze esperientziak partekatzen; eta bigarrena, migratzaileak eta errefuxiatuak eskualdeko baliabide komunitario horiekin harremanetan jartzeko.

- Tolosaldeko herritarren parte-hartzeari buruzko ikaskuntzen eta jakintzen bilketa.



Zuloaga Txikin egindako jarduerak.
Argazkia: Zehar-Errefuxiatuekin.

- Sentsibilizazio hitzaldia: “Jatorri anitzeko bizilagunak”. Ekimen honi esker, herritarrek errefuxiatuen egoera eta Tolosan izandako parte-hartze esperientziak ezagutu ahal izan zituzten.
- Mendi martxa bat Zolaga Txikitik Anoetako putzuetara. Jarduera hau Tolosako Udalarekin, Babeserako Euskal Programarekin, Zutanirekin eta CEAREkin batera egin zen.
- Zineforum bat, Nigeriako Divina Emakumeen Elkarte Kulturalarekin batera, non ‘Kinshasa Symphony’ dokumentala proiektatu genuen. Migratzaileen Nazioarteko Eguna ospatu genuen Zutanirekin eta Irungo Harrera Sarearekin batera, eta Mugarik Gabeko Etorrinek antolatutako maskulinitate berrien programan parte hartu genuen.

Larraña Etxea Oñatin

2021ean aldaketa esan-
guratsua eman zen
egoiliarren profilean
2020arekin alderatuta,
pandemia hasi zen ur-
tea.

239 pertsona
artatu
ditugu



Formakuntza Larraña Etxean. / Argazkia: Zehar-Errefuxiatuekin.




Azaroaren 25eko ekintza Larraña Etxean.
Argazkia: Zehar-Errefuxiatuekin.

33 familia artatu genituen eta gehienek 0 eta 12 urteko adingabeak zituzten. Lau haurtxo jaio ziren, beste bi egun gutxi zituztela iritsi ziren, eta haurdun zeuden sei emakume hartu genituen. Egoiliarren % 31 emakumeak izan ziren, eta % 69 gizonak.

Larraña Etxeak zentro anitza izaten jarraitu zuen, 27 nazionalitate ezberdinetako pertsonekin. 2021eko azken hilabeteetan, Tolosan bezala, Magrebeko pertsonen presentzia nabarmena izan zen. Hauek, Penintsulara iristeko bide benetan arriskutsuak egin behar izan zituzten.

Jatorri hauetako pertsonak bizi izan dira urte honetan zehar:



18 urtetik beherakoak egoiliar guztien % 25 izan ziren, eta 18 eta 30 urte bitarteko gazteak % 55. Larraña Etxean egindako egonaldien batez bestekoa 6 hilabete ingurukoa izan zen

Inklusioa

Ibilbide indibidualizatuak

Inklusio-taldeak 894 migratzaile, asilo-eskatzaille, errefuxiatu eta aberri gabe lagundu zituen. Horietatik 700 Bizkaian artatu ziren (560 bizikidetz-unitate), 181 Gipuzkoan (135 bizikidetz-unitate) eta 13 Araban (10 bizikidetz-unitate).

894 pertsona artatu dira

Gehienak profil hauetakoak ziren: osasun-arazoak zituzten pertsonak, ama bakarreko familiak, etxerik gabeko pertsonak, adinekoak eta zaurgarritasun bereziko egoeran zeuden gazteak, baita sare publikoak planteatutako inklusio-ibilbidetik kanpo geratzen zirenak ere.

Leihatila Bakarreko Zerbitzua

Bizkaiko eta Gipuzkoako gure bulegoetara lehen aldiz laguntza bila geraturatu ziren pertsona guztietatik 407 bizikidetz-unitateak ziren. %

563 pertsona artatu dira

58k nazioarteko babesarekin lotutako profila zuen, eta % 42k pertsona migratzaileen profila. Pertsona horiei guztiei berehala eman zitzairen arreta, egoeraren diagnostiko azkarra egin zitzairen, eta informazioa eta orientazioa jaso zuten beren eskariei eta premiei buruz.

Goihabe Programa

84 gizonetzkoak ziren eta 93 emakumezkoak. Zeharrek koordinatuta, Goihabe programa Bizkaian dauden nazioarteko babes eskatzaileen gizareratze-ibilbideen jarraitutasuna bermatzeko helburuarekin sortu zen (ebazpena jaso gabe, edo aldeko zein kontrako ebazpenarekin).

177 pertsona artatu dira



Ama-semeak parkean jolasten. / Argazkia: CEAR/Curruscu

Horrez gain, Goiha-be programaren onuradunak be-
rau osatzen duten erakunderen batekin gizarte- eta
hezkuntza-programa bat garatzen ari dira (Zehar,
Caritas, Gurutze Gorria, Ellacuría Fundazioa eta La-
gungo Fundazioa).

Azken Sarea Indartzen

Zeharrek Eusko Jaurlaritzaren Azken Sarea Indartzen
funtsaren babesas jaso zuen, COVID-19aren ondo-
riozko arrisku-, bazterketa- eta/edo pobrezia-egoerak
arintzeko. Programa honi esker, iaz artatu genituen
pertsona askok ez zituzten gizarteratze-ibilbideak
eten, eta jarraipena eman ahal izan genien, ongiza-
te-sistema publikorako sarbidean lagunduz.

Hemen

Hemen programaren bi-
tartez, Euskadira bakarrik
iritsi ziren adingabe atze-
rritarrak lagundu geni-
tuen. 2021ean 201 izan
ziren Hemenen erabiltzaileak, eta beste arreta-profil
batzuetako 68 pertsona; horiei kanpoko edo barruko
baliabideei buruzko orientazioa eta informazioa eskai-
ni genien.

Iaz sartu zen indarrean 903/2021 Errege Dekretua,
atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta aska-
tasunei eta gizarteratzeari buruzko 4/2000 Legea-
ren Araudia aldatu zuena. Erreforma hori onura-
garria da administrazioaren tutoretzapean dauden
edo tutoretza ohia duten adingabe eta gazte atzerri-

tarrentzat, harrera-jendarte-
an murgiltzeko dituzten
eragozpenei amaiera ematen
dielako eta, horrela, haien
integrazioa izugarri errazten
duelako. Erregelamendu
berriaren bidez, Espainiara
bakarrik iristen diren eta
administrazioaren babespean
dauden adingabe guztiak
behar bezala dokumentatuta
egotea bermatzen da. Gainera,
16 urtetik aurrera erregelartasunez
lan egiteko aukera ematen du.

2021ean, administrazio-egoera
irregularrean zeuden gazteek
banku-kontu bat irekitzeko
zailtasunak izaten jarraitu
zuten. Lortu zutenek, gehiegizko
komisioak ordaindu behar izan
zituzten trukean. Gure ustez,
irizpide murriztailea eta
diskriminatzailea aplikatzen
ari da, eta, horren eraginez,
gazte askok ezin dute Gizarteratze-
ko Laguntza Berezia jasotzeko
kontu bat ireki, besteak beste.

269 gazte
artatu dira



Lagunak Rubiken kuboan jolasten. / Argazkia: CEAR/Curruscu

Etxebizitza eskuratzeko zailtasunek ere jarraitu zuten 2021ean. Prezioek nabarmen egin zuten gora azken hilabeteetan, eta gazteek zailtasun handiak izan zituzten eta izaten jarraitzen dute alokairuko gela bat aurkitu ahal izateko.

Arlo juridikoa

2021ean nazioarteko 138 babes-espediente formalizatu genituen hiru lurraldeetan; horietatik 90 gizonak izan ziren eta 48 emakumeak. % 23,18 Georgiatik zetozen, % 19,56 Marokotik eta % 15,94 Aljeriatik. Hiru nazionalitate horietako pertsonak izan ziren gehiengoak, baina, Tunisiatik, Afganistandik, El Salvadorretik eta Hondurasetik etorritakoak ere artatu genituen, besteak beste.

414

Nazioarteko babes-prozeduren inguruko 414 jarduketa egin genituen

Arlo juridikoak kalitate onena bermatzen du nazioarteko babes-eskatzailleekin, aberrigabeekin eta egoera ahulean dauden migratzaileekin egiten dugun esku-hartzean.

Koordinazioa eta elkarrizketa mantentzeak erabakiak hartzen dituzten organoekin, hala nola Nazio Batuen Errefuxiatuentzako Goi Komisarioarekin (UNHCR) eta beste administrazio batzuekin, gure azken helburua errazten du, hau da, nazioarteko babes aitorzea.

Zerbitzu juridikoak arreta berezia eskaintzen dio genero-ikuspegiari, premia espezifikoerantzute-

ko eta tratamendu berezia emateko beharrezko neurriak hartzeko genero-berdintasuna sustatuz, nazioarteko babes eskatzen duten pertsonentzako espazio segurua bilatzeko, bai eta profil kalteberenak azkar hautemateko ere.

Era berean, nazioarteko babes eskatzen duten pertsonen oinarritzko eskubideak defendatzera ere hedatzen dugu lege-laguntza.



Asilo-eskatzaillea txartel gorriarekin. / Argazkia: CEAR/Curruscu

Intzidentzia

Bizitzeko ihes egin: Krimen antolatuaren aurrean babesteko aliantzak eraikiz txostena publikatzea

El Salvadorreko, Hondurasko, Mexikoko, Euskadiko eta Espainiako Estatuko kolektibo, erakunde, gizarte-mugimendu eta lan-sareen parte-hartzearekin egindako ikerketa-lan baten ondorioz, argitalpen bat egin genuen, non errealitatea ezagutarazteko eta antolatutako krimenaren ondorioz bortxatuak eta jazarriak izaten ari diren pertsonak babesteko beharra azpimarratu genuen.

Honduras eta El Salvador izan ziren Espainiako Estatuan asiloa eskatu zuten pertsona askoren sorleku nagusietako bi (hirugarrena eta bosgarrena, hurrenez hurren, 2019an eta 2020an). Horien artean eskaera gehienak ukatuak izan dira edo izaten ari dira.

Argitalpen honen sorburu izan ziren proiektuan eta ikerketan, kolektibo feministek, sexu-aniztasunaren ingurukoek, migrazioaren ingurukoek eta giza eskubideen aldekoek errealitate horri buruz dituzten ezagutzak eta eskaerak bildu eta harremanetan jarri genituen, arreta berezia jarritz emakumeen eta LGTBQ+ pertsonen egoerari. Aztertu genuen nola eragiten duten errealitate zehatz horretan sistema



kapitalistak, heteropatriarkalak eta heteronormatiboak, baita kolonialismoak eta inperialismoak ere, eta ikertu genuen nola txertatzen diren bortxatzen dituzten egituretan edo babesteko erantzukizuna duten horietan.

Eskaeren gorakadaren eta babesgabetasunaren arrazoiak ezagutzeko arduraz gain, Zeharren kezka ere bada giza eskubideen aldeko beste erakunde eta kolektibo batzuen bizi- eta lan-esparruak nola kaltetzen diren azaltzea, jarduten duten jatorrizko lurraldeetan krimen antolatuaren indarkeriazko adierazpenen eraginez.

lkerketa horiek politikan, prestakuntzan eta gizarte-sentsibilizazioan eragiteko estrategiak lantzen laguntzen digute, eta horrela, lortuko dugu gero eta agente sozial eta politiko gehiagok, gero eta pertsona eta erakunde gehiagok, krimen antolatutik ihes egiten dutenen nazioarteko babesa defendatzea. Jatorrizko lurraldeetan egoera hau salatzeak aurrerapausoak ematen lagunduko digu, eta harreran eta babesean aurrera egiten hemen bertan.

Ekimen horren baitan **Susanna Martin** artistaren 'Alde egin edo hil' komikia aurkeztu genuen Bilbon (Louise Michel liburu-denda), Agurainen (Eguzki liburu-denda), Donostian (Zubieta liburu-denda) eta Ermuan (Ermuko Liburutegiko irakurketa kluba).

Argitalpen honek gaur egun Euskadira iritsitako hainbat errefuxiaturen istorioak jasotzen ditu, El Salvadorretik eta Hondurasetik ihes egin behar izan zutenak krimen antolatuak haiengan eragiten zuen indarkeriagatik: marak, narkoa, estatu-agenteak, paraestatalak, etab.

Aguraingo aurkezpena ikusteko, sakatu [hemen](#).

Erbeste izan ginen. Babes gara?

2021ean hainbat jarduera egin genituen bi une historiko lotzeko: gerraosteko eta frankismoaren lehen urteetako erbestea eta gaur egungoa; bi espazio geografikotan: Mexikon eta Irun eta Hendaiaren arteko mugan. Bi gune hauek, mugetatik gertu daudenak, gure iraganaren adierazgarri dira; izan ere, milaka euskaldunek zeharkatu zuten Santiago zubia Hendaiara bidean 1937an, eta Mexikok

errefuxiatu euskaldun ugari hartu zituen. Atzera begiratzeak, erbestearen historiari so egiteak, enpatia garatzen laguntzen digu eta zenbait aldarrikapen egitera garamatza, hala nola egun miseriatik eta indarkeriatik ihesean dabiltzanentzako arrera integral eta duina eta eskubide guztiak eskatzea.

Urrian '**Erbeste izan ginen. Babes gara?**' mintegia antolatu genuen. **Bidaia bat izan zen Mexiko eta Euskal Herriaren artean**, Bilboko Bizkaia Aretoan bertan. Hainbat kolektibo euskaldun eta mexikar bertaratu ziren, esaterako, Caravana de Madres Centroamericanas, Etorquinekin, Intxorta 1937, Irungo Harrera Sarea eta zenbait emakume erbesteratu eta errefuxiatu. Erbestean adituak diren zenbait ikertzaile ere egon ziren, Josu Chueca eta Joseba Buj kasu, baita migratzaileen eskubideen aldeko aktibistak ere, Mariana Zaragoza, adibidez. Elkarte hauek guztiak 'Izan gaitzen babes' irratsaioan hartu zuten parte, 97 Irratiak editatutakoa. [Hemen](#) entzun dezakezue.

Ekimen beraren baitan, azaroan **Al Borde** films ekoiztetxeak Zehar-Errefuxiatuekin elkartearentzat



'Ipar Basatia' dokumentalaren fotograma bat. / Argazkia: Al Borde Films.

egindako 'Ipar Basatia' dokumentala aurkeztu genuen. 'Ipar Basatia' bidaia bat da Mexiko eta Euskal Herrian barrena. Barne mugimenduen bidez, harresi naturalen bidez eta giza hesien bidez, munduko Iparraren eta Hegoaren artean dauden migrazio fluxuak irudikatzen ditu. 'Ipar Basatia' dokumentalak ihes egitearen beldurra, bidaiak sorrarazten duen ziurgabetasuna eta migratzaileek bizirauteko erabiltzen dituzten hamaika estrategiak erakusten dizkigu. Era berean, agerian uzten du erakundeen utzikeria, egiturazko arrazakeria eta mugako kontrol-politikek migratzaileen eta errefuxiatuen bizitzetan duten eragina. Trailerra [hemen](#) ikus dezakezue.

Arrisku-egoeran dauden giza eskubideen defendatzaileak babestea

Euskadiko Babes Programaren markoan giza eskubideen bi defendatzaile hartzea

Otsailean, giza eskubideen defentsan egiten zuten lanaren ondorioz arriskuan zeuden bi emakume heldu ziren Euskadira, Giza Eskubideen Defendatzaileentzako Euskadiko Babes Programaren baitan. Horietako bat adinez txikiko alabarekin etorri zen.

- **Alto San Jorgeko Resguardoko (Cordoba, Kolonbia) lider indigena zenua:** Resguardo zenu hau meatzaritzan eta erauzketan oinarritutako garapen-ereduaren mehatxupean dago, lurraldea kontrolatzeko indarkeria erabiltzen duena. Talde armatuek eta erauzte-enpresen

herri indigenek lurrerako eta lurralderako duten eskubidea urratzen dute.

- **Leiria Vay García, Nekazarien Garapenerako Batzordea - CODECA (Guatemala):** indigena Maya K'iche-a, CODECAren zuzendaritza politiko nazionalako kidea.

CODECA 1992an 17 indigena eta nekazari analfabetok sortutako gizarte-mugimendua da. Gaur egun, herrialde osoan antolakuntza-egiturak ditu, eta nazio mailan mobilizatzeko gaitasuna duen gizarte-mugimendu indartsuena da.

Bakea sinatu ondoren, CODECA hilerrri klandestinoak desobiratzen hasi zen; izan ere, gerrillaren aliatuak ziren akusaziopean, armadak hamaika pertsona, familia eta komunitate sarraskitu eta lurperatu zituen. CODECAk lurrerako eskubidea, lan-eskubideak eta herri indigenen eskubide kolektiboak defendatzen ditu, eta Ama Lurraren, uraren eta lurraldearen defentsan egiten du lan. Horrez gain, pribatizatutako ondasunak eta zerbitzuak nazionalizatzea aldarrikatzen du. Bestalde, bere borroka nagusietako bat Estatu Plurinazionala eraikitzea da, Herrien Bizitza Onerako Batzar Konstituziogile Herritar eta Plurinazionalaren prozesu baten bidez.

Guatemalako mugimendu sozial erasotuena eta zapalduena izan da, bertoko zuzendarien difamazio, estigmatizazio, jazarpen penal eta hilketak oldearen jomuga.

Alboan eta Paz y Solidaridad Euskadiren eskutik, bi defendatzaileak (eta adinez txikiko neska) EAera iritsi ziren euren buruak fisikoki eta emozionalki indartzeko, baita nazioarteko laguntza-sareak zabalteko eta indartzeko agenda politiko bat garatzeko, beren lurraldeetara segurtasun eta babes handiagoko baldintzetan itzultzeko.

Euskadiko Babes Programaren X. urteurrena

2021ean, Giza Eskubideen Defendatzaileentzako Euskadiko Babes Programak 10 urte bete zituen. Marko horren baitan, hainbat jarduera antolatu genituen, giza eskubideen defendatzaileak eta haien kolektiboak babesteko praktiken inguruan eta haien aurkako indarkeria sortzen duten egiturazko kausen gainean hausnartzeko, eztabaidatzeko eta esperientziak partekatzeko. Urteurrenean berriz elkartzeko eta bizitza ospatzeko aukera izan genuen.

Segurtasun digitalaren inguruko ikastaro batekin eman genion hasiera, Digital Defenders Partnership-en eta Calala Fondo de Mujeres-en eskutik. Hauek, *'Recomendaciones sobre Seguridad Digital y Protección Integral Feminista en los programas de reubicación de Defensoras de DDHH'* (Segurtasun Digitalari eta Babes Integral Feministari buruzko Gomendioak Giza Eskubideen Defendatzaileak birkokatze programetan) txostena aurkeztu zuten. Bertan, erakunde publikoetako, giza eskubideen aldeko erakundeetako eta gizarte-mugimenduetako ordezkariok Babes Integral Feministaren, harreman-teknologiaren, informazio eta komunikazioaren eta segurtasun digitalaren arteko intersekzioak di-tuen erronken inguruan hausnartu genuen.



Urriaren 27an ekitaldi publiko bat egin genuen **#NosotrasProtegemos** **#BabesGara** lelopean. Giza eskubideen defendatzaileen, haien erakundeen, kolektiboen eta komunitateen lana omendu, errespetatu eta eskertzeko jardunaldia izan zen. Horretarako, hainbat kideren parte-hartzea izan genuen: Mary Lawlor, Nazio Batuetako Giza Eskubideen Errelatore Berezia; Espainiako estatuko hainbat babes programetako ordezkariak; eta azken urteetan Zeharrekin batera elkartasun politikorako tresna hau garatu duten antolakundeak, kolektiboak eta pertsonak.

Baina, bereziki zirrargarria izan zen aurretik Programan parte hartu zuten Kolonbiako hiru defendatzailearen parte-hartzea: Deyanira Soscué Zambrano, Cauca Kontseilu Indigenaren (CRIC) buru nasa; Danelly Estupiñán Valencia, Komunitate Beltzen Prozesuaren (PCN) buru afroa; eta Fabián

Torres, Herrien Biltzarrean (Kolonbia) eta Molka Kolektiboan (Katalunia) eskubideen defendatzaile.

Ekitaldia streaming bidez eman genuen. [HEMEN](#). ikus daiteke.

Gainera, ekitaldiaren aurretik Nazio Batuetako Giza Eskubideen Errelatore Berezi Lawlor andrearekin bildu ginen hainbat aldiz, babesean ditugun espe-rientziak, erronkak eta eskaerak partekatze.

10 urteak ospatzeko, defendatzaileei ahotsa emateko, eta babesean zein sarean egiten den lanaren inguruan dugun ikuspegia zabaltzeko, bideo bat egin genuen eta ekitaldian aurkeztu genuen: [“Babes gara”](#).



Kind Visualsek ekoiztiko Nosotras Protegemos dokumentalaren fotograma.

Euskadin Kolonbiako erbestea aitortzeko ekitaldian parte hartzea

Ekainean ‘Reconócame. Kolonbia erbesteratua Euskadin’ ekitaldian parte hartu genuen. Egiaren Batzordearen Kolonbia-Euskadiko nodoak antolatu zuen saioa, Kolonbiako gobernuaren eta FARC-EP-ren arteko Bake Akordioen ondotik sortu zena.



Kulturarteko elkarbizitza

Bizilagunak

Iaz Bizilagunak programa berreskuratu ahal izan genuen, Arabako Foru Aldundiak, Zeharrek eta Arabako zurrumurruen aurkako landa-eremuko agenteen sareek elkarlanean antolatu dutena. 36 nazionalitate ezberdinetako 685 pertsonak bazkaria partekatu zuten azaroko igandaren batean, eta elkar ezagutzeko, biltzeko eta hitz egiteko aukera izan zuten. Bizilagunak Arabako 8 udalerritan antolatu zen, 11 herri bazkari eta 22 familia bazkariarekin.

685

36 nazionalitateko
685 pertsonak
hartu zuten parte
bazkarietan



Ospakizuna bazkarietan. Argazkia/ Zehar.

Artibismoak

Artea, ARTibismo bilakatuta, sentsibilizatorako eta mobilizazio sozialerako tresna bat da, adierazpen artistikoak aldarrikapen sozialekin lotzen dituenak, publikoarengan enpatia sorrarazteko. Zeharrek 'ARTibismoak asiloaren alde' proiektua garatu zuen errefuxiatuen joan-etorrien kausak eta babesa irudikatzeko, **azken urteetan erakundeak egindako lan artistiko desberdinak zabalduz**. Zehazki, tailerrak, hitzaldiak eta zineforumak antolatu



genituen zenbait lanen inguruan: 'Alde egin edo hil' komikia, 'Sei metroko hesia saltatu nahi izan zuen emakumea' kontakizun liburua, '**Incendiario**', film laburra, eta 'creaCtivos' sormenezko lanak.

Lagoratorio

Zeharrek migratzaileei eta errefuxiatuei zuzendutako laborategi-eskolaren lehen edizioa jarri zuen martxan. Honen oinarria udalerrri bakoitzeko bitzita publikoan parte hartze soziala, politikoa eta kulturala sustatzeko ikastaroak dira. Espazio honi "**IAGORatorioa**" izena

25

parte-hartzaile inguru



Lagoratorioiko parte-hartzaileak / Argazkia: Zehar.

jarri genion, agorak eztabaidarako eta herritarrek parte hartzeko plaza publiko gisara hartuta. Parte hartu zuten pertsonak Arabako hiru udalerritan bizi ziren: Gasteizen, Agurainen eta Amurrion.

Zurrumurruen aurkako estrategia eta kulturen arteko bizikidetza Araban

Arabako landa eremuko bizilagunek bizikidetza-taldeak osatzen dituzte, aurreiritziak eta estereotipoak desagerrarazteko. Zurrumurruen aurkako taldeak izenez ezagunak dira eta Arabako herrietan desberdintasunerako eta diskriminaziorik ezerako eskubi-dea errealitate izan dadin egiten dute lan.

Hori lortzeko, estrategikoa da iritzi publikoa jotzea, zirrara sorraraztea, hunkitzea eta kultura-aniztasunaren aldeko sentimenduetara makurtzea, kultura-identitate desberdinetako pertsonen arteko zuzeneko harremana sustatuz.

Asmoa da pertsonen eta lagunen arteko solasaldien bidez eta besteen bizipenak lehen pertsonan jasotzearen bitartez jendarte arabar kohesionatu batera iristea eta bizilagun guztien parte-hartzea lortzea kulturarteko elkarbizitzaren sustapenean.

Zurrumurruen aurkako taldeek martxan jarraitu dute Amurrion, Laudion, Kanpezun eta Maeztun, eta beste bi berri sortu dituzte Langraiz Okan eta Artziniegan. Talde bakoitzaren errealitatetik eta beharrezanetatik abiatuta, urtean zehar hitzaldiak, topaketak, ikastaroak, zineforumak, paseoak eta taldeak sendotzeko balio izan zuten bilerak antolatu zituzten.



Zurrumurruen aurkako hainbat talderen argazkiak Araban.

Aurten ere, Arabako Foru Aldundiaren kulturarteko bizikidetzarako aniztasunaren kudeaketa estrategiaren baitan, Lautada eta Gorbeialdeko kuadrilletan kulturen arteko bizikidetzak kartografiatzen hasi ginen.

Eraberean

Eusko Jaurlaritzaren Tratu-berdintasunaren Aldeko eta Diskriminazioaren Aurkako Sarearen bitartez (Eraberean), 2021ean Zeharrek bederatzik kasu artatu zituen, horietako hiru emakumeak ziren. Hurrengo diskriminazio eremuen araberaren banatzen dira:

9

diskriminazio kasu artatu ziren

- Afrikar herritarren inguruko tratu estereotipatua komunikabide baten partetik (1).
- Bankuen gehiegikeriak oinarrizko kontuak irekitzean edo komisioak kobratzean (4).
- Diskriminazioa higiezin agentzietan edo partikularrek alokatutako etxebizitzak eskuratzean (1).
- Mehatxak jabearen eta maizterraren artean (1).
- Polizia-agente batek adingabe bat ahoz erasotzea (1).
- Eraso fisikoa merkatari bati (1).

Urtero antolatzen dugu 'Ahots ausartak' hitzaldia. 2021eko edizioaren ardatza gorroto diskurtso arrazistak eta xenofoboak izan ziren. Abenduan antolatu genuen Bilborock kontzertu-aretoan, Miss Raisa rap-kantari katalan, musulman eta feministaren parte-hartzearekin.

Tratu-berdintasunari eta diskriminaziorik ezari buruzko II. EUSKAL KONGRESUAREN inaugurazio jardunaldia
Jornada de inauguración del II CONGRESO VASCO sobre Igualdad de Trato y No Discriminación

AHOTS
AUSARTAK

GORROTOAREN DIKURTSO ARRAZISTA ETA XENOFOBEN AURKA

BILBOROCK 18:30
ABENDUAK 1
DICIEMBRE 1

PRESENTACIÓN DEL DOCUMENTAL
El Incendiario
DOKUMENTALAREN AURKEZPENA

VOCES
VALIENTES + MISS RAISA

CONTRA LOS DISCURSOS DEL ODI RACISTAS Y XENÓFOBOS

INFORMAZIOA ETA JEAN-EMATEAK
INFORMACIÓN E INSCRIPCIONES
eraberean@cear-euskadi.org
945 26 68 05
https://labur.eus/Lo453

CEAIR
El Centro de Estudios y Estudios de Opinión
Laboratorio de Estudios e Opinión

eraberean
EUSKAL LABUREREN ERABEREA
LABORATORIO DE ESTUDIOS E OPINIÓN

ERASO FISIKOAREN AURKAKO SAREAKO ERABEREA
LABORATORIO DE ESTUDIOS E OPINIÓN

Bizkaia
BIZKAIA
GOBERNUA

Biltzen
BILTZEN
GOBERNUA

"ASILOAREN ALDEKO ARTIBISMOAK" proiektuaren barne dagoen ekintza. Actividad enmarcada en el proyecto "ARTIVISMOS POR EL ASILO"

Kaleko ekintzetan parte hartzea

Aurreko urteetan bezala, ekainaren 20an, Errefuxiatuen Nazioarteko Egunean, mobilizazioak sustatu genituen hiru euskal hiriburuetan.

Ekainaren 20ko goiz hartan, 35 erakundek deituta, 400 pertsona inguru atera ziren euskal hiriburuetako kaleetara, iristeko bide seguruak eta harrera sistema duina aldarrikatzeko eta politikarien konpromisoa eskatzeko diskurtso arrazista eta xenofoboaren aurka.

Errefuxiatuen Nazioarteko Egunean antolatutako mobilizazioez gain, kaleko ekitaldien antolaketan parte hartu genuen, esaterako:



Ekainaren 20ko manifestazioa Bilbon. / Argazkia: Zehar.

400

persona
mobilizatu
ziren gure
hirietan
errefuxiatuen
alde

- Arrazakeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna (2021eko martxoaren 21a) Bilbon, Donostian eta Gasteizen.
- Afrikaren Eguna (2021eko maiatzaren 25a) Bilbon.
- Migratzaileen Eguna (2021eko abenduaren 18a) Gasteizen.

Tejiendo redes, ikasitakoak berreskuratzeko prozesua

2018an, Zeharrek Tejiendo Redes gunea sustatu zuen, emakume migratuei eta errefuxiatuei laguntzeko sare bat sortzeko eta Donostiako jarduera eta erakunde feministetan parte hartzea errazteko. Urte batzuk igaro ondoren, infografia bat sortzea erabaki genuen, espazio honetako jakintza eta esperientziak partekatzeko.

Metodologia honen bidez, honako ikaskuntza hauek atera genituen:

- Segurtasuna: emakumeek soilik osatutako espazio bat izateak konfiantzazko eta segurtasunezko harremanak sortzea ahalbidetu zuen.
- Partaide izatea: bizipenak, errezetak, abestiak eta norberaren jatorrizko herrialdearen inguruko informazioa partekatzeak nortasun eta partaide sentimendua indartu zuen.
- Horizontaltasuna: dinamizatzaileen eta parte-hartzaileen arteko rolak haustea ezinbesteko tresna izan zen.
- Kokapen estrategikoa: tailerrak Donostiako Emakumeen Etxean egiteak aukera eman zien

parte-hartzaileei emakume taldeek eta erakunde feministek sustatutako jardueretan parte hartze-ko.

- Material ukigarriak: ehuntzen ikastea, elkar ikusteko aitzakia izateaz gain, helburu bihurtu zen bere horretan.
- Garapen pertsonala: segurtasunezko eta konfiantzazko talde batean artisautza-jarduera bat egiteak prozesu pertsonal batean murgiltzeko aukera eman zien parte-hartzaile batzuei, eta bi-zi-errutina bat sortu zuten, ez soilik elkar ikusteko eta elkar laguntzeko, baizik eta errutina terapeutiko bat ere.
- Iraunkortasuna: hizkuntzak eta bizitzako beste esparru batzuekin kontziliatu beharrak, gizarte-ratzeko dinamikekin batera, batzuetan, topakete-tara bertaratzea eta haien iraunkortasuna zaildu zuten.

Komunikazioa

Guztira, komunikabideetan erregistratutako **527** inpaktu

9.504 jarraitzaile ditugu gure sare sozialetan

4.824 jarraitzaile Facebooken

2.614 jarraitzaile Twitterren

284 harpidetza Youtuben

1.627 jarraitzaile Instagramen

155 jarraitzaile gure Telegrameko kanal berrian

73.233 erabiltzaile gure webgunean eta

146.480 bisita orrialdeetan

Eta podcast kanalak ireki ditugu **Ivooxen** eta **Spotifyn**

25 urte bete ditugu Euskadin babesa ematen

2021eko maiatzaren 10ean, CEAR-Euskadik (orain, Zehar), 25 urte bete zituen erakunde juridiko independente gisa eratu zenetik. Euskal Autonomia Erki-degoan nazioarteko babesa bilatzen zuten pertsonen beharrei erantzuteko sortu zen. Tarte horretan, 90 herrialdetatik etorritako 40.000 pertsona lagundu ditugu bizi berri bat hasten. Gainera, lantalde juridikoak Euskadin 25 urte hauetan erregistratu diren asilo-eskaera guztien herena bideratu du.

Urteurren biribila ospatzeko, online solasaldi bat antolatu genuen eta gure Youtubeko kanalean eman genuen streaming bidez. Bertan, errefuxiatuek, boluntarioek eta hasieratik erakundearekin lotutako langileek hartu zuten parte.

Elkarrizketak 317 bistaratze izan zituen eta **HEMEN** ikus daiteke oraindik ere.

Gainera, Zeharreko sare sozialetan hainbat bideo partekatu genituen, era batera edo bestera erakundeari lotuta egon diren eta dauden pertsonen ingurukoak, hala nola **Javier Galparsoro**, erakunde presidentea eta sortzaileetako bat;



Ana María García, erakunde boluntario historikoa. / Argazkia: Zehar.

Hassanna Aalia, errefuxiatu sahararra eta Tolo-sako Zuloaga Txiki zentroko egungo langilea, edo **Ana María García**, erakundeko boluntario betera-noenetako bat.

- Erakundearen urteurrenak interes mediatiko handia piztu zuen. Zehazki, 2021eko maiatzean **56 inpaktu** erregistratu genituen komunikabideetan: 25 Interneten, 11 prentsa idatzian, 18 irratan eta 2 telebistan.

Ekainean egindako prentsaurrekoak

Ekainean 85 inpaktu erregistratu genituen komunikabideetan: 56 webgunean, 19 prentsan, 5 irratan eta 5 telebistan. Gehienak Errefuxiatuen Nazioarteko Egunaren bezperan antolatu genituen bi prentsaurrekorekin lotuta egon ziren.

E20aren prentsaurrekoa

Urtero bezala, ohikoa bihurtu den prentsaurrekoa egin genuen errefuxiatuen babes egoeraren azterketa orokorra egiteko, bai estatu eta mundu mailan eta baita Euskadi mailan ere.

COVID krisiaren ondorioetan jarri genuen fokua. Mundu mailan, pandemiak desberdintasunak, pobrezia, arrazakeria eta xenofobia areagotu zituen, eta are gehiago zaildu zuen babes internazionala behar zuten pertsonen ihesa. Hauek, jatorrizko lurraldeetan edo igarotze eremuetan harrapatuta geratu ziren. Sartzeko legezko bide segururik ez zegoenez, ibilbideak gero eta arriskutsuagoak bihurtu ziren. Pandemiaren une gogorrenak hemen bizi izan zituzten errefuxiatuen deskonexio eta isolamendu

sentsazioa areagotu egin zen, hemen ez zutelako la-guntza-sarerik, eta horrek eragin emozional handia ekarri zien.

Prentsaurrekoa streaming bidez eman genuen gure Youtubeko kanalaren bidez. **HEMEN** ikus daiteke bi-deo osoa.



Prentsaurrekoaren argazkia. Zehar.

Souleymanen istorioa

Souleymane Fuyugu Malikoa da. 2021eko mar-txoan iritsi zen Bilbora eta handik gutxira babes subsidiarioa eman zioten. Mali erdialdeko herrixka batean bizi zen, eta bertako eskola bateko maisua zen. Herrialdea hartuta duten talde jihadistak arma-tuak bere herrira heldu zirenean, eskola ixten ez bazuen hil egingo zutela mehatxatu zuten. *“Itxi be-har izan genuen, bagenekielako mehatxua benetakoa zela”, kontatu du Souleymanek. “Etxeak erretzen zituz-ten eta biztanle guztiak hiltzen zituzten. Gure gauzak, animaliak eta genuen guztia ere lapurtzen ziguten.*

Lana, merkataritza eta hezkuntza kendu zizkiguten, ez dute nahi hezkuntzarik egoterik. Handik alde egin behar izan nuen nire bizitza arriskuan zegoelako. Ni ez nintzen etorri Europara plazeragatik, sufritzen ari nintzelako etorri nintzen". Berez, ez zen bere asmoa Europara etortzea. Lehendabizi Maliko hiriburura joan zen, eta handik Senegalera. Baina ez zen erraza bizimodua ateratzea. Asmo berarekin Mauritaniara joan zen, eta bertan erabaki zuen Europarako bidea hartzea. "Ez zen batere erraza izan nire herrialdea eta nire anaia txikia atzean uztea, bera baita nire familia bakarra. Berarentzako etorkizun hobearen bila joan nintzen".

Lau eguneko itsasontzi bidaia baten ondoren, irailan Kanarietara iritsi zen, eta bost hilabete eman zituen bertan, krisi betean, Bilbora eraman zuten arte. Souleymanek argi uzten du: *"Afrika bere gazteak galtzen ari da Mediterraneo itsasoan, intelektualak eta biztanle guztiak galtzen ari da, kontinentea berreraiki nahi duten pertsonak. Nazioarteari eskatzen diot begiak ireki ditzala eta ez dadila izan Maliko eta Afrika Frankofonoko gainerako herrialdeetako gobernu ustel eta diktadoreen konplize".*

Marketina

Lankidetzahitzarmena Deustuko Unibertsitatearekin

Deustuko Unibertsitatearekin lankidetzahitzarmen bat sinatu genuen International Team Work irakasgaiaren bidez. Helburua ikasleei marketin sozialean esperientzia eskaintzea zen eta honek, zenbait jarrerara eta balio garatzera eraman zituen, babesaren,



Gaiarekin konprometitutako ikasle baten irudia/ Argazkia: Zehar.

asiloaeren eta migrazioaeren errealitate sozialekin konprometitzeaz gain.

Jostailu bat ilusio bat

Creceer Jugando Fundazioarekin egindako lankidetzahitzarmen bati esker, 140 jostailu baino gehiago banatu genituen gure harrera-zentroetako eta pisuetako haurren artean, fundazioaren **"Un juguete una ilusión"** (Jostailu bat, Ilusio bat) kanpainaren



Gure zentroan jostailuak jaso zituen haur baten irudia. Argazkia: Zehar.

barruan. Askotan, jolasak eta jostailuak lanerako tresna izaten dira. Profesional-taldeak adingabeekin komunikatzeko erabiltzen ditu. Gure zentroetako batean bizi zen ama batek hau kontatzen zuen jostailuen banaketaren ostean: *“Sirian gerra piztu zenean, nire seme zaharrenak hilabete bakarra zuen eta, orduetik, lehentasunak beste batzuk izan dira, jostailuak inoiz ez. Gaur, jolasgelan jostailuak jaso dituztenean, haurrak paradisuari sentitu dira. Gaur arte ez dute inoiz jostailu bat aukeratzeko edo opari bat irekitzeko aukerarik izan. Nire alabak 5 urte ditu, eta nire semeak, garai hartan hilabete bat zuenak, 8 urte ditu”.*

James Room

Duela hiru urte, musika talde honek gure atea jo zuen, ilusioz beterik eta Euskadira iristen ziren errefuxiatuak laguntzeko gogoz. Abesti bat egin zuten

horretarako, **Morning train**, **Bandcamp**-en argitaratu zutena. 2021ean indar handiagoz eta ilusio berarekin itzuli ziren, pandemia garaian konposatutako bost abestirekin. Aurkezpen kontzertua Zeharren alde izan zen. YIMBY Spacen (Bilbo) grabatu



James Roomen kontzertua. / Argazkia: James Room.

FS Fair Saturday
Festival



zuten kanta eta Bilboko Orkestra Sinfonikoaren (BOS) hari-laukote baten laguntza izan zuten. **Bizkaia FSNext** plataformaren bidez ikus daiteke kontzertua.

Fair Saturday

Gure lana gertutik jarraitzen duten erakunde eta pertsonak Fair Saturday ekimenarekin bat egin zuten berriz ere, artea eta kultura errefuxiatuen eskubideen alde jartzeko.

Kula Initiativeren laguntza izan genuen Pangean, yoga eta hang saio batekin. Caminamos para Crecer antzerki taldeak 'La Zanja' lana aurkeztu zuen Itsas Museoa, eta Blue Hole rock musika taldeak kontzertu bat eman zuen Artzon, Santurtzin.

Erakusketa Bilboko Metroan

'25 urteko babesak Euskadin' erakusketa Bilboko Metroaren lankidetzari esker jarri zen abian. Aza-



Erakusketa argazkia. Zehar.

roaren 15etik aurrera hainbat geltokitan egon zen, Zazpikaleetan, Abandon edo Portugaleten kasu.


25 aniversario

Abenduaren 16an publikoki ospatu genituen Zeharrekin Euskadin betetako 25 urteak. Bilboko Campos Eliseos Antzokian izan zen, **'Errefuxiatuena, a zer pagotxa'** gala solidarioarekin. Sorpresaz eta zirraraz beteriko ekitaldia izan zen. Ana María boluntario zaharrenari aitortza egin genion, Gusarova eta Power errefuxiatu familia historikoen testigantzak jaso genituen, eta Zeharren zuzendari berria aurkeztu genuen, Arantza Chacón, Patricia Bárcenari lekukoa hartu ziona. Hor ere, gure izen berriaren berri eman genuen.

Gorka Otxoa aktore ezagunak aurkeztu zuen gala, Barlovento Teatro konpainiaren 'Migraantes' antzezlanaren egokitzapen bat ikusi genuen, eta Afrika Bibang soul abeslari getxotarraren musikaz gozatu genuen.



Gorka Otxoa aktorea galaren irekieran. / Argazkia: Zehar.



www.zehar.eus



Bilbo

Arreta Bulegoa
Baiona kalea 1-3
48012
Tel: 944 059 566

Intzidentzia eta
Kudeaketa
Cristo kalea 9 Bis, 5.
48007
Tel: 944 059 566

Gasteiz

Trenbide kalea, 8
01006
Tel: 945 880 533

Oñati

Larraña Etxea zentroa
943 009 049

Tolosa

Zuloaga Txiki zentroa
688 642 538